

MENDIONA S.COOP **ENPRESAREN ESTATUTUAK**



1. KAPITULUA. INFORMAZIO OROKORRA

1. xedapena: izen soziala eta marka izena

Merkataritza sozietate hau "MendiOna S.Coop" izenarekin inskribatuko da. Kooperatiba honek MendiOna izen komertzialarekin lan egingen du.

2. xedapena: helbide soziala

- Helbidea: Uztarrotzeko kontzejua, 2. Iruñea. Nafarroa
- Posta kodea: 31.016
- Telefonoa: 848 43 05 00
- Posta elektronikoa: mendionakooperatiba@gmail.com

3. xedapena: kooperatibaren jarduera ekonomikoa edo zeregina

Bere jarduera nagusia, Nafar produktuak salerostea da. Horretarako:

- Nafar produktuak bestelako enpresei prezio baxuan erosiko dira
- Erositako produktuen sustapena egingen da
- Irabaziak lortzeko asmoarekin, lortutako produktuak salduko dira

4. xedapena: kooperatibaren iraupena

Aurtengo ikasturtea (2019-2020) irauten duena; hau da, gutxi gorabehera, 2020ko ekaina arte. Ondoren, kooperatiba likidatuko dugu.

5. xedapena: bazkide-langile izateko baldintzak

- IES Mendillorri BHI ikastetxeko DBH 3. mailako H eta J taldeko ikaslea izatea eta ekintzailtza eta enpresa jardueren hastapenak ikasgaian matrikulatua egotea.
- Hasierako bazkideen ekarpena egitea (10€), eta enpresak irauten duen denboran arau guztiak betetzea (bazkideen betebeharrak betetzea)

6. xedapena: bazkideen betebeharrak

- Denon parte hartzea eta eguneroko lana egitea. Jarrera egokia izatea
- Klasera etortzea beharrezkoa da, ez etortzerako kasuan justifikazioa beharrezkoa da.
- Zure karguak dituen lan-egiteak betetzea.
- Hartzen diren erabakiak guztiekin partekatu eta eguneratzea
- Bileretara aurkeztu, bertan errespetuz eztabaidatu eta erabakiak hartzea
- Lanak aurkezteko epeak errespetatzea
- Jasotako informazio enpresan bertan geratzea, inolako elkarteei, bezeroei, erakundeei... helarazi gabe.

7. xedapena: bazkideen eskubideak

- Aktibitate ekonomiko eta sozialetan parte hartzea.
- Batzar orokorrean botoa ematea eta hitz egitea.
- Enpresaren barruan kargu bat nork izango duen aukeratzea.
- Kooperatibak irabaziak izanez gero, denon artean irabazi horiekin zein jarduera eginen dugun erabaki
- Kooperatiba desagitean, baldin eta kooperatibak irabaziak dituen, enpresari egindako hasierako ekarpena berreskuratzea.

2. KAPITULUA. SOZIJETATEAREN ORGANOAK

LEHENENGO SEKZIOA: BATZAR OROKORRAK

8. xedapena: osaketa

Maidar Miranda, Unax Chocarro, Sara Eraña, Audrey Larrañeta, Mikel Rodriguez, Pau Larrañeta, Unai Pellejeros, Beñat Diez de Ure, Haizea Alonso, Uxue García, Aitor Salinas, Iker Ibero eta Ibai Aristu.

9. xedea: bilkura maiztasuna

Astean bitan: ostegunetan eta ostiraletan.

10. xedapena: akordioak hartzea

Akordioak gehiengo sinplez hartuko dira.

11. xedapena: kooperatibaren helburu nagusia

Gure kooperatibaren helburu nagusia, enpresa bat nola kudeatu eta antolatu ikastea da. Era berean, enpresarekin zerikusia duen guztia ikastea, beste gelako ikaskideak ezagutzea eta ongi pasatzea.

BIGARREN SEKZIOA: KONTSEILU ERREKTOREA

12. xedapena: osaketa

2019ko abenduaren 12an zuzendaritza errektorea aukeratzeko bozketa egin zen eta honela geratu zen osatua:

- Lehendakaria: Iker Ibero
- Lehendakari ordea: Mikel Rodriguez
- Idazkaria: Beñat Diez de Ure
- Diruzaina: Unai Pellejeros
- Diruzain ordea: Pau Larrañeta

13. xedapena: bilkura maiztasuna

Zuzendaritza errektorea hilabetean behin elkartuko da.

3. KAPITULUA. KAPITAL SOZIALA

14. xedapena: kapital soziala

Kooperatibaren kapital soziala ondorengoak osatzen du:

- Bazkide bakoitzak jarritako derrigorrezko hasierako ekarpena
- Eguberritako saskiaren zozketatik lortutakoa

15. xedapena: derrigorrezko hasierako ekarpena

1. Bazkideek egin beharreko ekarpena 10 eurokoa izango da.
2. Enpresak hala behar izanez gero, diru gehiago jarri beharko da.

16. xedapena: bazkideen erantzukizuna

MendiOna S.Coop erantzukizun mugatuko enpresa da, beraz, bazkideen erantzukizuna, egindako ekarpenari mugatua izango da.

17. xedapena: bazkideen ardura

Bazkideren bateko ondorengoa egingo balu:

- Lapurretarik balego, bikoitza itzuli beharko du eta kooperatibatik kanporatua izanen da. Kanporaketa parte jasoko du.
- Norbaitek bere lana beteko ez balu:
 - Lehenengo abisu bat emanen zaio
 - Bigarren abisuak ondorengo ondorioak izanen ditu:
 - 5etik gorako nota badu, 5era jaitsiko da
 - 5eko nota badu, ikasgaia suspendituko du.
 - Hirugarren abisutik gora, kanporaketa parte izanen du.

18. xedapena: irabazien erabilera. Lehenengo betebeharra

Kooperatibako bazkideek egindako ekarpena behin itzulita, irabazien %20 HELP-NA izeneko erakunde sozialari emango diogu.

19. xedapena: irabazien erabilera. Bukaerako betebeharra

Behin bazkideei hasierako ekarpena itzulita eta behin irabazien %20a HELP-NA elkarteari bideratuta, gure irabaziak taldea kohesionatzea helburu duen jarduera osagarri bat burutzera bideratuko da. Enpresako bazkideren bat jarduera osagarrira ez joatea erabakiko balu, diru hori enpresako gainerako bazkideek jarduera osagarrian erabiltzeko aukera izanen dute. Hau da, diru hori bazkideari ez zaio inoiz itzuliko. Jarduera hori burutu ostean, oraindik dirua geratuko balitz, HELP-NA emanen dizkiogu.

20. xedapena: jarduera osagarria erabakitzeko prozedura

Behin bazkideei hasierako ekarpena itzulita eta behin irabazien %20a HELP-NA elkarteari bideratuta, gure irabaziak taldea kohesionatzea helburu duen jarduera osagarri bat burutzera bideratuko da. Jarduera osagarri hau erabakitzeko, ikastetxean dauden gainerako kooperatibetako kideekin bileratxo bat egingen da eta gehiengo sinplez jarduera osagarriaren nondik norakoak erabakiko dira.

21. xedapena: galerak

Kooperatibak diru galerak izanen balitu, kooperatibako bazkideek diru galera horiek bere gain hartuko dituzte

4. KAPITULUA. KONTUAK ETA LIBURUAK

22. xedapena: kontuak

- Kooperatibaren kontuak diruzainak eramanen ditu baina batzar orokorreko kide guztiok uneoro ikusgai izanen dituzte.
- Kontuak eguneratuta eramango dira.

23. xedapena: elkarrearen dokumentazioak

Kooperatibak honako liburuak eraman beharko ditu:

- a) Akten liburua.
- b) Egoera-balantzea.
- c) Disposizio legalengatik eskatzen diren besteak.

5. KAPITULUA. LIKIDAZIOA

24. xedapena: kooperatiba desagertzearen zergatia

Kooperatibaren desagertzearen zergatia, 2019-2020ko ikasturtearen amaiera izanen da

25. xedapena: geratzen denarekin zer egin

Sokratzen den kantitatearen arabera, bi aukera ditugu:

1. Soberan dagoen kopurua esanguratsua bada, Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) bati eman diogu
2. Soberan dagoen kopurua gutxi bada, kooperatibako bazkideen artean banatuko da.